

Bizkaiko BDS taldeko partaideak garen eragile eta pertsona ezberdinak, Israeli Boikot, Desinbertsio eta Zigorren Kanpainaren inguruan antolatu dugun tailer partehartzaile batera gonbidatu nahi zaituztegu.

Tailerra maiatzaren 24an izango da, 18:00etan Zirika! Herri gunean (Erronda kalea 12, Bilbo), eta Ana Sanchez dinamizatuko du, Kanpainaren Palestinako Komitearen (BNC) Europako koordinatzailea.

Tailerran, kanpainaren oinarriak eta estrategiak azalduko dira, gaur egungo Palestinako egoera abiapuntu hartuta: zergatik hitzegiten dugun kolonialismoz, kolonoez, garbiketa etnikoaz eta apartheidaz; zergatik okupazioaz bakarrik hitzegitea ez den nahikoa; Osloko Hitzarmenen

hutsegitea...

Tailerrak bi orduko iraupena izango du, 45 minutu aurkezpena egiteko eta 1'15 ariketa eta dinamikak lantzeko.

Zalantzak izan badituzu kanpainarekin bat ez egiteko, etor zaitetz hilaren 24an!

Izena emateko: bdsbizkaia@gmail.com